

ISILDUTAKO AHOTSAK

“Isildutako ahotsak” Horixe aurtengo irailak 13, Donostiako Oroimen Historikoaren eguna ospatuko den ekitaldiaren izenburua. II. Errepublika, ondorengo gerra eta gerraoste garai luzean, emakumeek bizitzako errealitateari erreparatuko diogu musika, dantza eta antzerkia bilduko dituen ikuskizun poetikoaren bidez. Sei emakume taula gainean, sei artista, bakoitzak bere arlotik garai hartako egari eta sentipenei ahotsa emanaz: **Maite Arroitauregi (Musergo), Zuriñe Benavente, Beatriz Churruca, Miren Gojenola, Nerea Elizalde eta Sandra Fdez, Agirre** eszenan.

Hartu gorputz bat ta orriz orri

erantzi eta biluztu:

zenbat apiril gordetzen ditu?

Zenbat uztail ta abuztu?

Zenbat algara, zenbat garrasi,

Zenbat plazer, zenbat juzku?

Territorio haragizkoan

Memoria, itsumustu.

Uxue Alberdi